



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2017KO IRAILAREN 7AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

**Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Itziar Arratibel Imaz**

Etorri diren zinegotziak:
Jon Mikel Iglesias Otegui

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-
Echave

Ibarran 2017ko irailaren 7an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2017KO ABUZTUAREN 18KO AKTAREN ONARPENA

2017ko abuztuaren 18an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2017ko abuztuaren 18an eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA:

2.-2017KO ABUZTUAREN 22AN BURUTURIKO EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK

2.1 EUSKARA ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK: EUSKARA IKASLEEI DIRU-LAGUNTZAK

Ibarrako udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak 2017ko ekainaren 9an egindako bilkuran "Ibarrako udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako diru-laguntzak emateko oinarriak" onartu zituen.

Oinarri hoen 1. eranskinak euskaltegietan eta barnetegietan euskara ikasten duten ibararren diru-laguntzak arautzen ditu, eta oinarri horietako 4. artikulua diru-laguntza jaso ahal izateko baldintzak zehazten ditu, eta honakoak dira:

- a) Ibarran erroldatuta egotea, gutxienez ikasturtea hasi baino sei hilabete lehenagotik.
- b) Ikastaroa edo ikasturtea amaitu artean Ibarran erroldatuta jarraitzea.
- c) Euskaltegi edo barnetegiaren batean euskara ikastaro batean parte hartzea.
- d) Matrikula ordaindu izana.
- e) Ikastaroa bukatzea eta gutxienezko aprobetxamendua izatea. Hau ikastaroa jaso den Euskaltegiak edo barnetegiak egindako ziurtagiri bidez justifikatuko da.
- d) Gutxienez, %85eko asistentzia izatea.
- e) Diru-laguntzak jasotzeko inolako debekuren batean sartuta ez egotea. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan zehaztutakoak izango dira.
- f) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen aitopen erantzulea aurkeztea.

Baldintza horiek betetzen dituzten ibararrei matrikula kostuaren %100 diruz laguntzea aurreikusten du oinarrietako 1. eranskineko 8. artikulua.

Diru-laguntzak eskatzeko epea ekainaren 12an ireki zen eta uztailaren 28ra bitartean egon zen irekia. Epe horretan 20 herritarrek aurkeztu zuten eskaera, eta guztiek betetzen dituzte diru-laguntza jasotzeko baldintzak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Eskatutako diru kopurua 8.384 euro dira.

Udalak euskara ikasten duten ibarbarrei egindako esfortzua eskertu nahi die eta hori dela eta oinarrietan matrikularen %100 diru-laguntzeko aukera adierazten da

Zerbitzuaren diru partidak aztertuta, aipatutako gastuari aurre egiteko nahikoa diru dagoela ikusi da.

2017ko abuztuaren 22an buruturiko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA.- Onartzea honako diru-laguntzak:

Izena	100%
BSG	249,00 €
PMV	163,00 €
FLH	400,00 €
SRM	400,00 €
MLE	626,00 €
IA	163,00 €
IEI	637,00 €
MAS	400,00 €
VR	626,00 €
SMG	400,00 €
FEJ	626,00 €
LMS	400,00 €
RFG	400,00 €
RPG	400,00 €
LEZ	637,00 €
AR	583,00 €
NAM	180,00 €
PER	434,00 €
IDV	400,00 €
OM	260,00 €
GUZTIRA	8.384,00 €

BIGARRENGOA.- Aipatutako diru-laguntzak 430.335.00.00 partidatik ordaintzea.

HIRUGARRENGOA.- Hartutako akordioaren berri ematea interesatuei.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HIRUGARRENA:

GALDE ESKAERAK

Ez daude

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu and.ak egintza amaitutzat eman zuen goizeko hamaikak eta hamar direnean, eta nik, idazkari naizen honetan, horixe egiaztatu nahi dut